

**ERTZAINZAREN XXVI. PROMOZIOA**
XXVI PROMOCIÓN ERTZAINZA

2018-06-27 Arkaute 27-06-2018

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua, Segurtasun Sailaren eta Ertzaintzaren arduradun eta kideok, herri agintariok, herri ordezkariok, herri gizataldeetako ordezkariok ere, jaun andreok, egun on. Ongi etorri Arkautera, ongi etorri Ertzaintzara.

Gaur zuen eguna da, hogeita seigarren promozioiko kideen eguna. Zorionak!

Prestakuntza gogorra gainditu ondoren etapa berri bati ematen diozue hasiera. Entzun dugun bezala gaur, **kaxkabeltzok**, Akademia utzi eta Ertzaintzako zerbitzu ezberdinetarako hegaldia hasten duzue. Zorte on eta animo!

Bienvenidas y bienvenidos. Agradezco vuestro compromiso con el servicio público y la seguridad de nuestro País. A partir de hoy, en proceso de prácticas, formáis ya parte de la Ertzaintza; una policía integral, basada en principios éticos y democráticos, comprometida con la convivencia pacífica, el bienestar y prosperidad de Euskadi.

Habéis decidido que el **carbonero común** sea el pájaro que os represente en vuestro estandarte. Un pájaro adaptado al entorno natural de los bosques, pradales y parques de Euskadi; también a los entornos más urbanos y transformados por la acción humana. Este el paisaje natural y sociodemográfico en el que os va tocar trabajar.

Os incorporáis a una institución respetada y querida. Hoy es un buen día para reconocer el esfuerzo de la Ertzaintza por reforzar la protección ciudadana y los servicios de seguridad; investigar más y mejor; integrar nuevos métodos de protección y tecnologías más avanzadas. En definitiva, aportar seguridad al bien común que representan la calidad de vida, el bienestar y la convivencia en comunidad.

Ertzaintza gure herritarrei, gertutasunez eta gizatasunez, segurtasun zerbitzua eskaintzen dion erakundea da. Ertzaina izatea ez da beti lan erraza. Horregatik egiten dugu zuen prestakuntzan, zuen formazioan, ahalegin berezia.

Hemen Arkauteko Akademian izan den bezala, hobekuntzak izan behar du zuen bide lagun. Gizartea bera aldatzen doan neurrian, zuek ere egokitzen joan beharko duzue.

Zentzu honetan adierazgarria da emakumearen parte hartzea. Promozio berri honetan %26a emakumeak zarete eta gure helburua da geroz eta gehiago erakartzea. Arlo honetan zuen eredua oso baliogarria izatea espero dugu eta, urtea amaitu aurretik, 400 ertzain berrirako deialdia egiten dugunean, geroz eta emakume gehiago erakartzea espero dugu.

Hoy es vuestro día y quiero felicitaros a todos y todas.

Remarco que de las 263 personas aspirantes de esta promoción, el 26 % sois mujeres. Dobláis con creces el porcentaje actual de mujeres en la Ertzaintza. Saludo con satisfacción este avance significativo. Queda mucho camino por recorrer para que la Ertzaintza en su conjunto y el conjunto de los servicios de seguridad integren en sus actividades más mujeres con absoluta normalidad.

Espero y deseo que vuestro ejemplo profesional sirva de espejo para aquellas mujeres jóvenes que puedan albergar aún dudas sobre la posibilidad de ser Ertzaina como opción vocacional y profesional de servicio a la ciudadanía.

Antes de finalizar el año realizaremos una nueva convocatoria con 400 plazas. Nuestro objetivo es seguir anticipando la renovación generacional de esta Ertzaintza a la que ahora os incorporáis y lograr la incorporación de más mujeres.

Me vais a permitir también unas palabras de felicitación expresa a la Academia de Arkaute por la labor de formación de nuevas generaciones de Ertzainas, así como el compromiso con la formación permanente en el seno de la institución. Realizáis una gran labor de formación para el conjunto de los servicios de la seguridad pública, tanto en lo policial como en emergencias y otros servicios de seguridad. Gracias a esta labor que aquí se inicia con cada una de las promociones, la Ertzaintza goza hoy del prestigio y el aprecio general de la sociedad vasca.

Ertzaintza gure autogobernuaren zutabe bat da eta berme bat euskal gizartearen segurtasunerako. Gogoan izan beti gaur agertu eta onartu duzuen

konpromisoa. Beti ere herritarren zerbitzura jardutekoa. Ez da nolanhiko konpromisoa. Ertzaintza gure herri-izaeraren zutabe sendo bat da eta segurtasuna gizarte osoaren lehentasun bat. Horren adierazpen eta sostengu izatea dagokizue.

Gaur eskatu nahi dizuet beti gogoan izan ditzazuela Ertzaintzaren balioak:

- Konpromisoa gizartearekin.
- Herritarrengan konfiantza sortu, gardentasunaz eta komunikazioaren bitartez.
- Talde lana eta erakundearen barne koherentzia bultzatu.
- Ahalik eta atxikimendu eta onarpen sozial handiena lortu.
- Erakundearen buru izan, ertzain bakoitzaren eguneroko lanean hartutako erantzukizun eta funtzioetatik.

Ez ahaztu inoiz balio horiek, erakundeari izena ematen diote eta.

Termino.

Habéis tomado la decisión de integraros en la Ertzaintza. Adquirís un compromiso con un modelo de Seguridad y de Ertzaintza al servicio integral de la sociedad vasca. Es una gran responsabilidad y un honor. Representáis la nueva savia que renueva el cuerpo de la Ertzaintza. Una renovación para seguir mejorando nuestro servicio y compromiso.

Hoy os pido que recordéis siempre los valores de la Ertzaintza y los practiquéis: compromiso, confianza en la ciudadanía, transparencia, trabajo en equipo, responsabilidad.

Os incorporáis a la Erantzaintza, un pilar de nuestro Autogobierno y una garantía para la seguridad de la sociedad vasca.

Hoy, con vuestras familias, compañeras y compañeros, podéis sentir y expresar con entusiasmo el orgullo de vuestra decisión.

Kaxkabeltzok, gaur hasten duzue hegaldiaren norabidea, Akademia honetan argi eta garbi adierazia eta ondo ikasia. Ekin arro hegaldiari.

Zorionak denoi eta eskerrik asko!